

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gure produktuaren ezaugarriak eta abantaila nagusiak aurkeztuko ditugu. Produktu bat erostean, haren berezitasunak eta erabiltzaileari eskaintzen dizkioten onurak duten garrantzietan oinarritzen baikara. Gure helburua pertsonen beharrak asetzea da, horregatik, guk produktu erabilgarri eta berritzaile bat eskainiko dugu. Horretarako, bere abantailak eta erabileraren erraztasunak zehaztuko ditugu hemen.

Gaur egun, ilea orraztea erronka bat bihurtu da askorentzat, batez ere ile luzea, sendoa edo kizkurtzearekin borrokan ari direnentzat. Horretarako gure orraziaren ideia nagusia, gauzak erreztea da, hau da, gure bezeroentzako erosoia izatea. Gure produktuaren helburua kizkurtzea kentzea da, horretarako, orraziaren oinarrian dagoen sprayak lagunduko du hau kentzen.

Aurkezpenean esan bezala, kizkurtze arazoak areagotzen duen orrazi bat da eta nahi duzunean eta nahi duzun aldietan erabili dezakezu. Produktu honek ilea ez kizkurtzea balio du. Orrazi honek, besteek ez bezala, spray bat du orraziaren oinarrian eta orraziaren barruan kokatuta egongo da. Spray-aren funtzionamendua zehaztuko dugu, lehenengo tubo batetik kizkurtze arazoa gutxitzen duen spraya eramango du orraziak dituen puntaraino eta iristen denean ilera isuriko da, orrazten zaren bitartean kizkurtze arazoa kenduz. Spray-a orraziatik ateratzeko, orrazian egongo den botoi bat sakatu beharko da. Spray-a gastatuko balitz, ordezkatzeko aukera izango luke. Hogeitazortzi ordu iraute du bere efektuak, denbora hau pasatzerakoan, berriro eman dezakezu. Gure produktuak, ile mota guztientzako balio du. Horretarako, bi modelo eskainiko ditugu.

Lehenengoa, ile fina duten pertsonentzako da, gehien bat ile lisoa duten pertsonentzat. Orrazi modelo hau, ahulagoa da ile sentikorra duten pertsonentzako. Horretarako, orraziaren adarrak edo puntak ez dira hain sendoak, ilea ez hondatzeko. Orraziaren kolorea moratua izango da, orraziaren forma laukizuzena izango da eta materiala plastikoaz egina egongo da.



Beste modeloa aldiz, ile sendoagoa duten pertsonentzarako oinarrituta dago. Honetarako, orraziaren adarrak sendoak izango dira ilean produktua ondo barneratzeko. Ile mota hau orraztea gehiago kostatzen denez, punta gehiago edukiko ditu guztiz orrazteko, eta ilea ez puskatzeko. Honen forma ere laukizuzena izango da, baina



eskinetan lehen esan bezela, punta berezi batzuk izango ditu ile kizkurra dutenei orrazten laguntzeko. Kolore urdina edukiko du eta bukatzeko honen materiala plastikoaz egina egongo da.

Bien prezioa, 26 eurokoa izango da. Spray-a gastatzen denean aldatu nahi baduzu (spray-a) 10 euro balioko ditu. Erosketa egin ondoren 30 eguneko epea edukiko dute arazoren bat izanez gero, produktua guztiz dohainik aldatzeko edo itzultzeko.

Bestalde, gure produktua itzultzeko, gure enpresaren garraioa gidatzen duten pertsonen lana izango da. Itzultzeko, jaso duzun modu berdinean izango da. Gure produktua, hasieran, Espainia mailan salduko da. Aurrerantzean, Europa mailan saltzea adosten badugu, garraioa aldakorra izango da. Beste enpresa batekin kolaboratuko dugu (Amazon), garraioa Europa mailan izateko.